

IRAKIARREN KONTRAKO SARRASKIARI EZ GERRAKO BIKTIMEN OROIMENEAN

Martxoaren 20an gerra hasi zela hiru urte beteko dira. Ingalaterra eta AEBk irakiarren aurka burutzen ari diren genozidioaren aurrean gure arbuioa plazaratzeko hainbat gizarte kolektibo, sindikatu eta Gobernu Kanpoko Erakundek berriro kalera irtetea erabaki dugu. Asmo horrekin martxoaren 18an Bihotz Sakratutik Bilboko Udaletxera joango den manifestazioa deitzen dugu.

Dena dela, asko eta asko izango dira egun berean eta lelo bertsupean mundu zabalean protesta ekintzak burutuko dituztenak. Hemen bezala, munduko hainbat txokotan elkarrekiko errespetua, askatasun eta aniztasuna aldarrikatuko dituzte, zapalkuntza mota guztien aurka eta gizarte eskubideak eta justiziaren alde.

Hortaz, hiru urte gerra hasi zela pasa direlarik, gure konpromisoa berresten dugu:

1. GERRARIK EZ

- Gerra ez da inoiz gatazkentzako irtenbide zuzena izan, zentzugabekeriaren gailentzea baizik.
- Zibilak helburu militarizat hartzen direlako.
- Gerra honek 100.000 hildako, milaka zauritu eta desplazatu eta Irakeko erabateko suntsipena ekarri dituelako.

2. GASTU MILITARRARI EZ

- Gerraren aitzakia baliatuta, gero eta diru gehiago xahutzen ari da gastu militarrean; langabezia, txirotasuna eta etxebizitzaren arazoa arintzeko erabili litezkeen aurrekontu sailen kalterako.
- Gerra hau armagintzaren onerako besterik ez da izan. Izan ere armagintza eta armen salerosketak etengabe goraka doaz oinarrizko gizarte beharren kalterako.

3. ALDAKETA SAKONEN BEHARRA NAZIOARTEKO HARREMANETAN

- Munduko arazoei aurre egiteko sustraizko aldaketak ezinbestekoak dira hainbat arlotan: gizarte mailaketan, ekonomian, politikagintzan, kulturagintzan...
- Egungo nazioarteko ordena guztiz bidegabekoa da: 841 milioi lagun goseak jota daude, 1000 milioi lagunek ez daukate etxebizitza egokirik, 250 milioi ume ezin dira eskolara joan...

4. ASKATASUN URRAKETA

- Ziurtasunaren izenean askatasuna gero eta gehiago urratzen ari da. Besteak beste intimitate-eskubidearen inbasioa, telefono-espioitza, informatika-espioitza, agindu judizialik gabe etxebizitzan indarrez sartzean, inkomunikazioaldien luzatzea, zigorgabetasun guneen ugaltzea, joan-etorri librearen murrizketa...Gauzak horrela kontrol poliziala eta errepresio orokorra egunerokoan gailentzen ari da.
- Azken urteotan disidentzia eta gizarte mugimenduen kontrako kriminalizazioa gero eta nabarmenagoa da.
- Xenofobia eta etorkinen aurkako jarrerak ugaritzen ari dira.

Honenbestez, nazioarteko gatazken konponbide baketsu eta hitzartuen alde dauden guztiei Bilbora etortzeko deia luzatzen diegu. Gerra anker hau salatu nahi dugu, baita gerraren erantzuleak ere: bakea eta demokrazia aho betean darabiltzaten bitartean, inolako gupidarik gabe herriak eta hiriak bonbardatzen dituzte eta Guantanamo bezalako egoera erdeinagarriak zilegitzen dituzte. Laburbilduz, dei hau luzatzen diogu askatasuna, giza eskubideak, desmilitarizazioa eta justizia egunero defendatzen dituen orori.